



ALKIZAKO UDALA

Alkizar estimatua,

Idatzi honen bidez, jakinarazi nahi dizugu, Alkizako Udalak, etxeetan sortzen den hondakin organikoaren frakzioaren kudeaketa sistema aldatzea erabaki duela.

2013. urtetik, herrian sortzen zen hondakin organikoa herrian kudeatzen genuen; banakako konpostagaria eta auzo-konpost-guneen bidez.

Udalak azken urteetan egindako ikuskapenek erakutsi dute herritarrek galdu dutela auzokonpost-gune hauek erabiltzeko interesa.

Tolosaldeko Mankomunitateak Alkizan jasotzen den errefusaren edukiontzia karakterizazioa egiterakoan, ikusi da errefusarako bideratutako edukiontzi hauetan hondakin organikoaren portzentaia handituz joan dela. Ondorioz, herriko birziklapen-tasa orokorra gainbeheran joan da azken urteetan eta Tolosaldeko txikiena da orain.

Horren ondorioz udalak hondakinen bilketa-sistema aldatzea erabaki du birziklapen-tasan balio egokietara eraman ahal izateko eta herriko Tokiko Agenda 2030ean jarritako helburuak bete ahal izateko.

Udalerriko hondakinen bilketa-puntuetan, hots, Errekalden, Herrigunean eta Azaldegín, edukiontzi marroia jarriko da gainerako edukiontziekin batera.

Udalak etxeko hondakin organikoa biltzea errazteko aireztatutako kuboak eta poltsa konpostagarriak banatuko ditu, edukiontzi marroiaren erabilera esplikatzen eta sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, prestatutako diptiko batekin batera. Horretarako, informazio-puntu bat ezarriko dugu herriko plazan ondorengo egunetan:

-Maiatzaren 6an, ostiralarekin, 17:30tatik 19:30tara

- Maiatzaren 7an, larunbarekin, 11:00tatik 13:30tara

- Maiatzaren 12an, ostegunarekin, 17:30tatik 19:30tara

Egun horietan azaltzeko modurik izango ez bazenu, udaletxeko ordutegian jaso dezakezu kit-a.

Mila esker

Inaki Irazabalbeitia Fernandez

Alkatea

